



"Lan duina, bizi duina" aldarriak Euskal Herriko hainbat txoko zeharkatu ditu urriaz geroztik, Iruñean abiatu genuen dinamikaren eskutik. Durangora iritsi da gaur, azken geltokira, baina borrokak aurrera jarraituko du, langile kolektibo guztiei babesa eskaintzeko konpromisoa berretsi baitugu, euren eskubideen defentsan. Hala adierazi du LABeko idazkari nagusi ondoko Igor Arroyok, Ekimen Ibiltariaren ekitaldi nagusian: "Lan duina eta bizi duina, horixe da gure bandera. Lan duina eta bizi duina, denontzat. Gizonentzat eta bereziki emakumeentzat. Edozein dela ere norberaren kolorea edo jatorria. Edozein dela norberaren gaitasun funtzionalak edo orientazio sexuala".

Kalejira batekin ekin diogu egunari, Ernai erakundearekin batera. Hain zuzen ere, gazteentzat izan ditu hitzak Arroyok, Landako Gunean egindako ekitaldian: "Prekarietatearen kontra, ekin diezaiogun elkarrekin. Aliantzak eraiki ditzagun. Eta guretzat aliantza garrantzitsua da LAB eta Ernaren artean garatu beharrekoa. LAB eta Ernai elkarrekin, borroka honetan aitzindari izan gaitzke".

